

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2013ko otsaila • 276. alea

MBAYE NDAYE
Elkartasunaren eskuak



SORATOSTIAK

Iturria: Kontrargi eta Pil-pilean

2013



Lozorro, zomorro, mozorro



Maite Kintanilla Arrate Gisasola

Polittori!

Izenan jatorrixa dala, Euskal Herriko txoko bakoitzeko ohitturak dirala... Aratostien errotan bueltaka dihardut azken aldian. Xarma berezixa dauke neguko jai honek. Ilargixan zikluak, mareak sortziaz gain, ezartzen dittu gure egutegixan egunok. Kristautasun atzaparrek gogor atximurkatu bagintzuzten be (Aratoste = haragi+oste), gure arbaso nekazarixetan ilargixak zeukan nagusittasuna egundaino ailegatu da.

Koloriak, joale soinuak... etortzen jakuz gogora. Baina badakizu, kulturak ez dittu ezarritako mugak ezagutzen eta neguko festa hau Europako mendabalde osuan da ezaguna. Guk, guretik,

“Hazi eta hezi egin dogu herrixa, txikitasunian haundi egin gara”

EUSKAL ARATOSTIAK landu doguz. Eta zein edarra dan, herri bakoitzak norberetik lantzia, munduan erdigunia ez dala kontuan eukitta!

Teoria ugari omen dare inauterixen jatorrixan gainian. Ezaguna da lurra esnatzian ideia, berau kolpatzen zan udaberrixan emankorra izan zein. Edo Urbeltz ikerlari nafarrak diñuan moduan, uzten galera eragiten zebeñ zomorruen aurrian mozo-rotzen zan, erritu gisa. Hortxe berba jolasa!

Ta gu be MOZORROTU egin gara aurtenguan. Jendarte kapitalista eta patriarkar honek inposatzen doskun disfrazta erantzi dogu, une batez. Edertasun faltsuan bilaketari uko egin eta nitasuna ahaztuz, talde izaera landu dogu. Koloretako tela, zintzarri eta eskulanakin eraiki doguz Euskal Aratostiak. Jolasetik auzolanera, arbasuengandik gaurkotasunera; dana lapikuan nahastu eta proiektu zoragarrixa sortuz. Hazi eta hezi egin dogu herrixa, txikitasunian haundi egin gara danok alkarrekin.

Eta zu Arrate, disfrazatu ala mozorrotu egin zara?

Kaixo txiki!

Pozik, ilusinuakin, urduri... Holaxe heldu netsan inauterixetako barixaku eguardixari. Poliki-poliki jantzi nitzan, hobe esanda, poliki-poliki jantzi ninduan Surraundixak. Hasieratik elkarlana eskatzen zebeñ mozorruak, zomorruak, eta laguntasunian sartu nitzan Arrateren lozorruan.

Lozorruan, Ziripot nintzala amestu neban. Amets lotu hoietako bat barik irudixak datozkit gogora; haur eta helduak barrez, herrixa, elkarlana, koloriak, dantzak, mural landuak, nortasuna...

Txokolateepelbat hartuta moduan esnatu nitzan logoxotik. Gorputza arinduta, pentsakor eta esaldi borobil bat etengabe kaskezurrian: Bien Plaentzia, bien!

Ziripoten azalian sentsazino eta balore haundixak jaso nittuan baina dana ez da hain politta, eta datozen garaixen aurrian kezkarik

**“Gure nortasun zintzarri txiki
hoiek egunero eta alkarrekin
astintzian dago klabia”**

ez dakatela esatia gezurretan aritzia litzake. Euskal Inauterixekin, une batez apurtu genduan kapitalismo eta patriarkatu indartzera dator LOMCE deittutako hezkuntza erreforma barrixa; euskara gutxiago, konpetibitate gehixago, gurasoen parte hartze txikiagoa etabar luuuuuze bat.

Dana dala, ez dot inundi inora lozorro ametsa baztertu nahi, nahixago dot balore hoietan hazi eta heztia. Kolorez astindu genduan herrixa, euskaraz eta elkarlanian. Une batez apurtu genduzenak gehixagotan apurtzia posible dala sinisten dot. Barita majikorik ez dago, gure nortasun zintzarri txiki hoiek egunero eta alkarrekin astintzian dago klabia.

Amets Arzallusen esaldixa moldatuz bukatu nahi neuke gaurko jarduna. “Hezkuntza ez da eskolako pareta artian gordetzen dan arnasa, hezkuntza da herrixak hartu eta herrixari pasa”. Bide horretan ekinian diharduzula badakit Maite, eta ni zurekin noia!

Gutunak

Bizimodu duin **Elkartasuna eta antolaketa**

baten aldeko
batzarra

Krisiaren aurrean mobilizatze beharra ikusi eta gogoz hasi ginen antolatzen iaz. Krisi hau ez da kasualitate hutsa, sistema honen interes ekonomikoen ondorio bat baizik. Helburu horrekin, langile, langabetu zein jubilatuen baldintzak okertu, laguntza sozial eta zerbitzu publikoak murriztu dituzte, bankuek milaka familia beraien etxeetatik bota ditzaten baimenduz.

Herritarrek antolatzeko asmoarekin batzar zabalak egiten hasi ginen, baina arrazoi ezberdinak medio (antolaketa eredu, beldurra...), bilatzen genuen aniztasuna ez dugu lortu. Hemendik aurrera ez ditugu maiztasun konkretu batekin batzarrak egingo, baina egoera larrien aurrean erantzun tinkoa emateko konpromisoa mantentzen dugu. Zabalik jarraitzen dugu egoera larrian aurkitzen diren herritarrei gure elkartasuna adierazteko. Horregatik edozein eskubide urraketa pairatzen duena, edota alternatiba berriak sortzea nahi duen herritarra, gurekin harremanetan jartzera gonbidatzen dugu.

Elkartasuna eta herritarren antolaketa ezinbestekoak baitira sistema justoago bat eskuratzeko.

Ion Irisarri, **Harrera Taldea**

Angel Murgoitio
eta Koldo
Kareaga
Soraluzeko
Harrera Taldea

Eskutitz honen bitartez, soraluzetarroi Harrera Taldea sortu dugula jakinarazi nahi dizuegu. Elkarrekin hau ideologia edo eta arazo politikoengatik atzerrian edo kartzelan egondako pertsonen laguntzeko taldea da. Euren herrietatik kanpo urte mordera pasa eta gero, batek baino gehiagok gizartearekiko lotura guztiak moztuta izaten ditu. Gure lana, itzulera eta gizartratze duina ahalbideratzea izango da.

Errepresioaren eraginez, preso eta erbesteratu askok arazo fisiko eta psikologikoak jasan dituzte, baina zorionez, sendagileek eraturako Jaiki Hadi elkarte arduratzen da horien zaintza-lanaz. Harrera Taldea, preso eta erbesteratu ohien tramite administratibo eta aholkularitza-lanak egiteaz arduratuko da. Dirulaguntzak, bazkideen kuotak, ideiak, lanpostuak, lagunak, etxebizitzak, logelak edota edozein motatako laguntzak beharko dira.

Bolondresez osatutako elkartasun-sare honek Euskal Herri mailan jardungo du, legalki erregistratuta dago eta ez du irabazi asmorik.

Lerro hauen bitartez, otsailaren 28an, eguaztena, 19:30ean Zinean burutuko dugun aurkezpena gonbidatu nahi zaituztegu. Aldez aurretik, eskerrik asko.

Julian Ezenarro **Ekonomian Nobela Soraluzen**

Soraluzen hiru mendi hektarea eta bost behor erosita, lanbide-arteko gutxieneko soldata besteko errentagarritasun lortzen da (641 euro edo gehiago). Munduan leku bakarra izango da, baina Soraluzen baserriar edo txabola jabe guztiek dute laborantza titulu akademikoa, gaitasun ikastaro titulua eta esperientzia profesionala bermatzen duen ziurtagiria. Orain ulertzen dugu zergatik eskatu zizkiguten titulu horiek guztiak zaldiak gordetzeko kamioi baten kartola jartzeko.

2011ko abuztuan kartola kentzeko agindua heldu zitzaigun udaletik, ezkutuko obrak zirela argudiatuta. Alkate eta idazkariarekin bildu ginen esateko inongo obrarik ez zela egin. Berau ikusteko gonbita egin genien, baina ez ziren mugitu.

Laburbilduz, legeztatu nahi izanez gero ziurtagiri pila bat bete eta lehen aipatutako titulu guztiak ekarri behar genituen, Arluziaga alkatearen eta Rezabal arkitektoaren eta Zalazar idazkariaren sinadurarekin.

Neguan pinudi batera eraman genuen kartola eta urtebete geroago, gabe geratu ginen. Lapurrak izan ziren? Ba ez, hiru gutun zertifikatu iritsi zitzaizkigun; 500 euroko isuna entzungor egiteagatik eta 470 eurokoa eskulanagatik. Roke Akizu (Aldundikoa eta Bildukoa) delako baten izenean.

Bilduko alkateak argia ikusi du. Sistemaren aurkako izatetik, bere ondasunak baloratzea pasatu da.

Bittartetik



Jokin Oregi

Julen Pitt Jolie

”Josuk zorte txarra zer den edertodaki. Gelako zatarrena bera zen; bizilagunen artean ere bera zatarrena; lantegian zatarrena; parrandan zatarrena; oporretan zatarrena. Ebakuntza egitea erabaki zuen arte. Brad Pitten argazkia erakutsi zion zirujauari. “Horrelakoa izan nahi dut”, esan zion animoso. Medikuek lan bikaina egin zuten, hain ona eze Brad Pitten hurrengo filmean Josu eszena arriskutsuetarako kontratatu baitzuten. A ze kolpe salda, a ze ubelduak, puntuak buruan, puntuak gerrian eta puntuak puntaren puntan. Josuk ordea, ez zuen amore eman, hurrengo pelikula maitasun pelikula izango zela zin egin ziotelako (ze maitasun mota izango zen zehaztu gabe, edonola ere). Josuk jo eta su, eta izerdi eta adur, aritu behar izan zuen ohean Antonio Banderaekin. Zuzenago esanda, Antonio Banderaren ordezkorekin.

Josu Pitt zeharo haserre zegoen munduarekin, Jainkoarekin, gurasoekin, haien arbasoekin, bere zorte txarraren arduradun izan zitekeen edozerekin... Iratxe ezagutu zuen arte, Iratxe Jolie.

Josuk zorte txarra betirako uxatu zuela uste izan zuen. Elkarrekin bizitzen hasi ziren Josu Pitt eta Iratxe Jolie. Bietako inork ez zuen sekula bestearen gaztetako argazkiak ikusteko jakinminik agertu. Gaia aipatu ere ez zuten egin.

Zorte txarrari izkin egin ziola sinistuta zegoen Josu, baina euren umea jaio zenean bihotzak krausk egin zion umea zeinen guapoa eta zeinen beltza zela ikusi zuenean.

Tira, pentsatu zuen Josuk atsekabea kaxoian gorde ondoren, hau zirujau on batekin konponduko dugu, Julen Pitt Jolie nor den inork ez dezala zalantza egin.”

“Adinduen duintasuna bermatzeko ezinbesteko gunea da Itxaropena”

Jose Antonio Calles



Itxaropena Elkarteko lehendakari da iaztik Jose Antonio.

lazko martxoan izendatu zuten Jose Antonio Calles (Zaldibar, 1949) Itxaropena Elkarteko lehendakari. Mendizale eta pilotazale amorratua izateaz gain, langile fina ere bada Calles, halaxe aitortu dute berarekin lanean diharduten junta-kideek. Ezjakintasunetik abiatuta, seriositasunez eta gogotsu bete du gaurdaino jubilatuen presidente kargua eta dirukontuak eramatea, ekintzak antolatzea eta elkarterako hobekuntza lanak proposatzea ditu orain egiteko nagusi.

Lehendakari moduan, joan den urtearen balorazioa egiterik bai?

Egia esateko beldurrez hartu genuen juntako kide izatearen ardura, hasiera batean ezer gutxi genekien guk ekonomiaz edota aisialdiaz. Elkartea egunean-egunean egoki kudeatzeko asmoak bultzatuta, junta sistema berria jarri dugu martxan. Aurten gurekin Txaro Lete, Gilermo Alberdi, Ana Rosa Laskurain eta Juan Garcia arituko dira. Gainontzean lan-talde jator eta euskalduna osatzen dugu eta aurreikusitako helburuak bete ditugu; bazkideak pozik daude gaurdaino egindakoarekin. Jubilatuek bigarren etxea dute hemen.

Zein hobekuntza egin diozue elkarteari?

Murrizketekin denak behera egiten duenean lehendik ezarritako lle-apaindegi eta

podologia zerbitzuak mantendu egin ditugu. Mahai joko berriak, hari musikala... eta asmoa da bi ordenagailu berri instalatzea.

“Larrialdietarako irteera baten diseinua behar-beharrezkoa da”

“Lan-talde jatorra osatzen dugu eta aurreikusitako helburuak bete ditugu”

Elkarteko terraza konpontzeko asmoa ere baduzue.

Bai, uda parterako plan pribilegiatua izango litzateke guretzat elkarre gaineko terrazan lagunartean aritu ahal izatea. Horrek, bizitasuna emango lioke jubilatuen etxeari. Baina zuk ondo esan moduan asmoa da oraindik, murrizketekin proiektuetan lehenetasunak markatu behar izan ditugu.

Aurrekontuen beherakadak eragin handia izan du zuenean?

Diru falta beti igartzen da. Lehenetasunak markatze aldera, larrialdietarako irteera baten diseinua behar-beharrezkoa da jubilatuetan. Badakigu herrian Itxarope-

nara gerturatzea gustatuko litzaiekeen ezindu asko dagoela eta larrialdi irteera honek gurgildun aulkian dauden herritarrei elkarterako sarrera erraztuko lieke.

Epe luzera, zein etorkizun ikusten diozu elkarteari?

Itxaropenak 700 bazkidetik gora ditu baina egia da adinean aurrera goazela eta bazkide zerrenda gaztetzea behar dugula. Bazkide-kuota 10 eurokoa da urtean. Gogoratu nahi dut baina herritar guztiak izango direla noizbait erretiratu eta adinduen duintasuna bermatzeko ezinbesteko gunea da Itxaropena. Elkarre hau zahartzaroan dauden ilusioak betetzeko sortu zen eta denon esku dago ekimen berriak proposatu eta aurrera eramatea (jubilatuen abesbatza, gimnasia saioak, eskulan tailerrak...).

Animatu orduan jubilatutako berriak Itxaropenako bazkide izatera!

Jende askok jubilatuetara etorri gero, zahartzat hartzen du bere burua eta inork ez du bere burua zahartzat hartu nahi. Familia hazita eta hezita dagoenean, erretiroarekin bakardadea sumatzen hasten da. Guk eguneroko monotoniari aukerak eskaintzen dizkiogu: tailerrak, karta jokoak, hitzaldiak, irteerak, bazkariak, lehiaketak, dantzaldiak... eta ekimenotan 100 bazkidetik gora hartzen dugu parte. Lagunartean gozatzeko momentu ugari izaten dira gurean.



Hezkuntzaren gaineko gogoeta bultzatzeko ekimenak

Hezkuntza-komunitatearen barruan gogoeta bultzatzeko helburuarekin, Udaleko Hezkuntza Batzordeak hainbat ekimen antolatu ditu datozen hilabeteetarako. Atzoko Zine Foruma izan zen lehen ekimena, eta datorren martitzenean "Hezkuntza plazara" izenburupean mahai-ingurua egingo da Zinean.

Guraso-eskolak martxotik aurrera

Martxoa, apirila eta maiatzean zehar, 6-12 urte bitarteko umeak dituzten gurasoendako eskola-saioak antolatu dituzte, Atxolin Guraso Elkarteak eta udalak elkarlanean. Asmoa da, "gurasoei, zalantzak elkarrekin hausnartzeko espazio konpartitu bat eskaintzea, profesional adituen aholkularitzarekin". Guztira sei saio eskainiko dira: "Zer da haztea? Gurasoengandik askatzeko proze-

sua" (martxoak 14), "Mugak eta espazioak" (martxoak 21), "Autoritatea eta arauak" (apirilak 11), "Zer da pubertaroa? Gurasoen papera" (apirilak 18), "Berdinen arteko harremanak" (apirilak 25) eta "Etzerako lanak: betiko eztabaidagaia" (maiatzak 9). Martxoaren 5ean, arratsaldeko 19:00etan aurkeztuko dute ekimena Zinean.



FotoNotizia



Elurtuta esnatu ginen

Euskal Herriko herri asko moduan, izara zuriaren azpian esnatu zen Soraluze otsailaren 12an. Aratosteetako martitzena zen, eta herriak berak ere mozorrotzea erabaki zuela zirudien. Umeek eskolatik jai zutenaz, ederki astindu zuten maindire zuria herriko bazterretan.

Inkestak herritarren kontsumo ohiturak ezagutzeko

Otsailaren 4an aurkeztu zuten, herriko merkataritza indartzeko helburuarekin, Bizikalek eta udalak elkarlanean garatuko duten hausnarketa prozesua. Prozesua kudeatuko duen IE-TEAM enpresako teknikariak azaldu zenez, lehenengo fasea diganostikoarena izango da. Hori dela eta, herritarren kontsumo ohituren eta iritzien berri jasotzeko galdetegiak banatu dituzte egunotan. Datuok jaso ostean, elkarrekin etorkizunerako erronka nagusiak identifikatu, eta datozen urteetan garatu beharreko ekintza-plana zehaztuko dute. Egitasmoak 20.000 euro inguruko kostua izango du, eta martxoaren amaiera alderako amaituta izatea aurreikusten dute.

TAO aparkalekuekiko ordenantza

Erregetxeko TAO aparkalekuen erabilerrako arauak jasotzen dituen ordenantza onartu zuen udalak otsaileko udalbatzarrean. Ordenantzaren arabera, TAO, astelehenetik barixakura (09:00-21:00) eta zapatuetan (9:00-13:30) ezarriko da. Horrekin batera, aparkatzeko gehinezko denbora 90 minutukoa izango dela zehazten du eta hiru orduko tartean ezingo dela berriaz aparkatu. Arauak bete ezean, udaltzainek ohiko isunak ezarriko dituzte.

UEUko ikastaroetarako dirulaguntzak

Euskaraz egiten den heziketa eskaintzan parte hartzea bultzatu asmoz, UEUk eskaintzen dituen ikastaroetarako dirulaguntzak emango ditu udalak. Zehazki, udalerrian erroldatutakoei matrikularen erdia (%50) itzuliko die ikastaroan %85eko asistentzia izanez gero. Dirulaguntza eskaera udaleko Euskara Zerbitzuan egin behar da. Aurtan, udako ikastaroak uztailearen 1etik 24ra bitartean burutuko dira eta ikastaroen eskaintza eta horiei buruzko informazioa www.ueu.org webgunean dago ikusgai.

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696

MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Balategieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Festa erraldoia antolatu dute Txuri-urdinek

X. urteurrena ospatuko du aurten 400 bazkidetik gora dituen Txuri-urdirin errealezaleen Elkarteak. Martxoaren 23an ume, gazte eta nagusiei zuzendutako ekimenez beteko ditu herriko kale eta plazak. Goizeko 11:00ak aldera sagardo kupel erraldoiaz abalduko dute Plaza Zaharrean eta txorizo pintxoak ere banatuko dituzte. Gorriti eta bere abereek erakustaldia eskainiko dute eta buruhandiak eguerdi giroa berotzen arituko dira. Txurrukara bazkaltzera joan aurretik bazkide argazkia aterako dute eta eguna borobiltze aldera txarangak alaituko du arratsaldeko poteoa. Umeentzat puzgarriak jostagarri izango dira egun osoan zehar. Bazkarirako izen-ematea Txoko kafetegian egin behar da.



Harrera Taldea aurkeztuko dute

Preso ohi eta erbesteratuen gizarte-eratzeari errazteko asmoz Euskal Herri mailan sortu den Harrera elkarteak aurkeztuko dute hilaren 28an, Sorluzen. Harrera Taldeak, espetxetik irteten diren presoek edota erbesteratuek datozenei laguntza administratibo eta soziala eskainiko die (lan munduan, gizarte laguntzetan, osasun arloan, alde juridikoan...), kaleko egokitze prozesua ahal den eta erosoena izan dezaten. Sorluzeko Harrera Taldea herriko preso ohiak sortu dute baina herritarrei ahal duten neurrian laguntzeko eskatu nahi diete. Aurkezpen ekitaldia 19:30ean hasiko da, Zinean.

Aho batez onartu dute aurrekontu egitasmoa

Aurrekontu-egitasmoaren alde bozkatu azuten ordezkari guztiak otsailaren 6ko udalbatzarrean. Bozketaren aurretik, EAJK eta PSE-EEk emendakina aurkeztu zuten, eta onartu ere bai, udal gobernuak aurka bozkatu arren. "Kanpo-enpresen kontratazio-rako diru-partida 21.000 eurotan murriztu eta aisialdiko azpiegiturarako bideratzea" proposatzen zuen emendakinak. Ostean, alkateak honakoa adierazi zuen: "aipatu ez arren, emendakinaren benetako helburua ahokulariaren kontratazio-rako dirua beste zeregin batzuetarako bideratzea da, baina bozkatuko dugun aurrekontu-egitasmoak bere baitan ahokulariaren kontratazioa jasotzen jarraituko du". Ondoren, aho batez onartu zen aurrekontua.

Denak "pozik" emaitzarekin

Udal gobernu eta oposizioa pozik azaldu ziren, batak eta besteak emendakinaren onarpenaren inguruko interpretazio ezberdinak egin arren. EAJK bere poza azaldu zuen, "emendakina onartu ostean, aurrekontuen alde egitea erantzunkizunez eta koherentziaz jokatzeko dela" adieraziz. PSE-EEk ere antzeko arrazoiketa bera erabilizuen.

Alkatea ere "pozik" azaldu zen, baina "udal gobernuak proposatutako aurrekontuak egitasmo guzti-guztiekin" onartu zituztela gogorarazi nahi izan zuen. Adostasuna lortzeko egindako ahaleginari "joku mediatiko zikinarekin" erantzun izana leporatu zion oposizioari. Azkenik, "legegintzaldi amaierarako zorra %45 jeitea lortu dutela" nabarmendu zuen.

Ahalduntzea landuko du aurten Emakumeen Topaguneak

Martxoaren 8rako egitaraua ez ezik, Murte osorako plangintza zehazten dihardu Emakumeen Topagunea. Aurten bereziki emakumeen ahalduntzea lantzeko baliabideak eskaini nahi dituzte, hau da, tailerren bitartez, emakume izatearen kontzientziazioan sakondu eta eroso bizitzeko tresnak eskuragarri jarri nahi dituzte. Horri bide emateko proposamen zehatzak ere badituzte: zoru pelbikoa indartzeko tailerra, auto-estimua lantzeko tailerra, emozioei buruzko tailerra, amodio erromantikoaz aritzeko... Egitasmoa osatzen lagundu nahi duenak berdintasuna@soraluze.net helbidera idatz dezake.

Emakumeen Nazioarteko Eguna inguruko egitaraua:

Martxoak 8, 19:30ean: Elkarretaratzea "Euskal Herria Parekidetasunez eraiki" Ondoren luntxa feminista Kontzejupean.

Martxoak 22, 22:15ean Zinean: Antzerki emanaldia "Ellas bailan solas".

Martxoak 25, 18:30ean Zinean: Hitzaldia "Bertsolaritza, begirada feminista bat" Uxue Alberdiren eskutik.



Sorluzeko Emakumeen Topaguneko kideak.

HNOS. BENITO ANAIAK

Etxe eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Javier Alonso Zelaleta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

Mbayerenganako elkartasun olatua

Diruak ez du senarrak, aitak edo anaiak lagatako hutsunerik beteko, ez eta norbere herrialdea laga beharrak eragindako minik osatuko, baina lagundu dezake eguneroko bizimoduko beharrak asetzen, eta horixe da hain zuzen soraluzetarrek emandako 14.000 euroekin lortuko dena.

Mbayeren (32 urte) heriotzak herriaren sortu duen atsekabea handia izan da. Berria jakin orduko, elkartasun mugimendua zabaldu zen herritarren artean, eta ez du etenik izan, arik eta jarritako helburu ekonomikoa gainditu den arte. Herrian 14.000 euro batu dira eta Bergaran eta Elgoibarren jasotako 3.000 euroak gehituta, guztira 17.000 euro jaso dira.

Adin eta ideologia guztietako soraluzetarrak batu dira

Inoizko elkarlanik anitzena

Heriotzaren berria jakin eta hiru egunera, lehenengo bilera egin zen herriko antzokian. Ehun eta hirurogei soraluzetar baino gehiago bertaratu ziren. Adin eta ideologia guztietako soraluzetarrak batu zituen Mbayerenganako elkartasunak. Batutako jendetza "harrizkeo modukoa" zela nabarmendu zuten bilera hartan bertan. Bildutakoek, diru-bilketa burutzeko 10 euroko bono-laguntzak ateratzea erabaki zuten, eta hurrengo egunean bertan (Aratoste martitzena), bonoak saltzeko postua jarri zen kalean. Ondorengo hiru-lau egunetan, 10.000 euroko muga gainditzea lortu zuten. Deitzaileek azpimarratu dute "benetan eskertzekoa" dela soraluzetarrek eman duten



Mbayek, andrea (Cumba) eta hiru seme-alaba laga ditu Senegalen: 11 urteko semea (Nday), 9 urteko alaba (Awa) eta urte eta erdiko semea (Cheik). Bizi zen bitartean hilero bidaltzen zien dirua etxera.



Mbaye Senegalgo Louga bailaran dagoen Kermañak herrixkan jaiotakoa zen, eta oso gazterik atera zen bertatik. Louga bailara Senegalgo ipar ekialdean kokatua dago eta 29.188 km²-ko hedadura dauka (Gipuzkoak 1.950), eta 78.671 biztanle inguru ditu. Erljio musulmana da nagusi eta wolofa eta frantsesa dira hizkuntza ofizialak, beste hainbat hizkuntza berba egiten diren arren. Bizibide nagusiak arrantza eta nekazaritza dira, turismoarekin batera, eta urteko batazbesteko errenta 1.500 euro ingurukoa da (125 euro hilabeteko). Langabezia berriz %48koa da. Hori dela eta, senegaldar askok, Mbayek bezala, atzerriko herrialdeetara jotzen dute -Herrialde Arabiarrek, Europa...- bizimodua atera nahian. Horrela, bidaia luze eta neketsuak egin behar izaten dituzte, eta askok bizia ere galitzen dute bidean.

erantzuna, eta "inoiz ikusi gabeko elkartasun eta elkarlan maila izan dela".

Dirua familiarendako

Hasiera batean, jasotako diruaren zati bat hilotzaren garraiorako erabiltzea aurreikusi bazuten ere, kostu hori guztia estaltzeko behar zen dirua (6.000 euro) senegaldarrek eurak eman zutela jakin ostean, batutako diru guztia familiari bideratzea erabaki zuten, joan zen astelehenean egindako bigarren asanblada orokorrean. Bertan, Mbayeren anaiak eta Bergarako Ndank Ndank senegaldarren lagunen elkar-tekoek hartu zuten parte, eta familiari hilerio 250 euroko laguntza bideratzeko egin zuten proposamena aho batez onartu zen. Gainera, diru bidalketak kudeatzeko eta etorkizunean ekimenari jarraipena zela eman erabakitzeke, Jarraipen Batzordea osatu dute. Dozenaren bat herritarrek eta udaleko ordezkariak hartuko dute parte batzordean.

Pertsona berezia

Eibarren, Elgoibarren, Bergaran, Arrasaten, Soroluzen... inguruko herri guztietan zituen ezagunak Mbayek, eta loturak ere bai: "baterekin tragoa hartzen zuen, bestearekin bazkaldu, halako harekin etxean lo, bestearekin oparia egin...". Bere heriotzak, harreman



Iturria: Koldo Kareaga

Lehenengo asanblada Zinean (otsailak 11).

Mbayek zuen harreman-sarea harrigarria zen eta bere heriotzak azaleratu egin du modu ikusgarrian

sare "harrigarria" azaleratu du; bailaran bizi izan zen zazpi urteetan osatu zuena, bereziki Soroluzen. Ezagutu zutenek, Mbayeren "umiltasuna, ontasuna eta zintotasuna" nabarmentzen dute. "Tristea da bere herria lagata etorri eta horrela amaitzea, baina pozgarria da ikustea, zelako elkartasuna pizteko gai izan den. Pertsona berezia zen", adierazi digu herritar batek.

Begarako Ndank-Ndank Elkarte

Mbayerenganako elkartasun mugimenduan "ezinbesteko bidelagun" izan dira Ndank Ndank elkartekoak, Mamadou Sarr (lehendakaria) eta Eli Dominguez (kidea). Euren bideratu dituzte familiarekiko harremanak eta Bergaran egin den diru-bilketa.

Ndank Ndank izeneko elkarte "poliki-poliki" esan nahi du woloferaz, joan zen urtean sortu zuten Begarako senegaldar eta euskaldun talde batek. Elkartearen helburua bikoitza da: batetik euskaldunen eta senegaldarren kulturartekotasuna bultzatzea; eta bestetik, Senegalen hezkuntza eta osasun arloen garapenerako lankidetzako proiektuakurrera eroatea. Dagoeneko, Senegalgo Fatick eskualdeko eskoletan ikasgelak konpontzeko egitasmo bat dute martxan.

Kulturartekotasuna bultzatzea eta lankidetzako proiektuak garatzea dute helburu



Iturria: Ndank Ndank taldea

Ndank Ndank elkarteko kide batzuk.

Senegalera joango dira datorren hilean

Datorren hilean, elkarteko ordezkariak Senegalera joango dira, eta euren garapenerako proiektuak lantzearekin batera, Mbayeren familia ere bisitatuko dute. Elkar ezagutu eta diru-bidalketaren inguruko xehetasunak

adosteko. Horren guztiaren berri emango dute itzultzen direnean.

Ndank Ndank elkartekoak Begarako Biko tabernan batzen dira eta elkarteko kide egin nahi izanez gero, bertara joan, ndank.ndank.elkartea@gmail.com helbidera idatzi edo 677 705 356 zenbakira deitu daiteke.

Mbaye Ndiaye senegaldarraren heriotzaren ostean, elkartasun mugimendu indartsua sortu da herrian. Adin eta esparru ezberdinetako ehundaka soraluzetarrek egin dute bat elkartasunezko diru-bilketarekin.

Zer iruditu zaizu Mbayen heriotza dela eta sortu den elkartasun mugimendua?



Ángela Pozo

Oso ondo iruditzen zait, gaixoa ezer barik gelditu da eta. Nik ezagutu nuen eta oso pertsona jatorra iruditu zitzaidan. Gu ere etorri ginen gure garaian, baina orduan inork ez zigun lagundu.



Nerea Rascón

Oso harro nago herriak eman duen erantzunarekin. Ez nuen espero horrenbestekoa izango zenik. Besteenganako errespetu handia zuen mutila zen eta primerako pertsona. Denok batera, ideologia ezberdinetako pertsonak batuta, gauza asko egin dezakegu.



Celso Domínguez

Aurpegiari antzematen zitzaien pertsona ona zela eta horrek mugitu du jendea. Pozgarria da hainbeste pertsona ezberdin batuta ikustea; gazteak, nagusiak... Politak da horrelako gauzak egiten dituen herri txiki batean bizitzea.



Maikel Castro

Primeran iruditu zait. Nik ez nuen asko ezagutzen, baina poztekoa da norbaitek laguntza behar duenean herriak laguntzen diola ikustea.

Lehiaketa

Zein da?



Saria:
Pizza bat
Estazioko Bodegan.

Aurreko aleko erantzuna

Maite Kintanilla, Pil-pilean Euskaldunon Elkarteko Kultura eta Aisialdi saileko arduraduna.

Irabazlea



Asun Nuñez

Oharra: Lehiaketako irabazlea aukeratzeko zozketa alea etara eta hurrengo barixaku eguerdian egiten da.

Deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpolean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

KM
Desing
Diseinua eta Sormena
Polígono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Kirol emaitzak

PELOTA

Aritz Lasa – Pascual	22
Retegi Bi – Laskurain	19
Gallastegi – Urkiri	16
Tolosako bikotea	8
Tajuelo – Fernandez	18
Debako bikotea	4
Santamaria – Kortaberria	22
Urretxuko bikotea	7
Andreu – Aldape	22
Andueza – Iparragirre	0

FUTBOLA

Zumaiako – Sora (Erreg. Pref.)	0-2
Sailkapenean 7.na, 1.etik 14 puntura	
Sora (Erreg.) deskantsua	
Sailkapenean 5.na, 1.etik 6 puntura	
Arizmendi – Sora (Jub.)	2-3
Sailkapenean 6.na, 1.etik 6 puntura	
Sora (Kad. Mut.) – Mutriku	2-4
Sailkapenean 6.na, 1.etik 13 puntura	
Sora (Kad. Nesk.) – Allerru	0-2
Sailkapenean 7.na, 1.etik 7 puntura	
Zestoa – Sora (Inf. Mut.)	6-2
Sailkapenean 4.na, 1.etik 12 puntura	
Anaitasuna – Sora (Inf. Nesk.)	6-0
Sailkapenean 5.na, 1.etik 21 puntura	

Agenda

PELOTA

Domeka 24, 17:00etan Astelenan (etb1)
Jaunarena – Laskurain
Retegi Bi – Pascual

Gaur, 19:00etan Aranen
Irureta
Burlada

Andreu – Aldape
Azpeitiko bikotea

FUTBOLA

Zapatua 23, 16:00etan Ezozin
Sora (Erreg. Pref.) – Beasain

Zapatua 23, 18:15ean Ezozin
Sora (Erreg.) – Eibartarrak

Zapatua 23, 13:30ean Ezozin
Sora (Jub.) – Eibartarrak

Zapatua 23, 14:30ean Garmendipen
Ikasberri – Sora (Kad. Mut.)

Zapatua 23, 12:45ean Puion
Vasconia – Sora (Kad. Nesk.)

Domeka 24, 11:00etan Puion
San Patricio – Sora (Inf. Mut.)

Domeka 24, 11:30ean Ezozin
Sora (Inf. Nesk.) – Mutriku

Gurpil Aulkiko Pala Txapelketan lehiatuko da Unamuno

Domekan hasiko da GEPF eta Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak antolatutako Gurpil Aulkiko Pala Txapelketa. Guztira lau bikotek lehiatuko dute, tartean, Edurne Unamuno soraluzetarra Bidaniako ordezkariarekin batera arituko da. Jardunaldi bakoitzean bikote guztiek guztien aurka jokatu beharko dute eta finalera lehen bi sailkatuak pasatuko dira. Soraluzen hirugarren kanporaketa jokatu da apirillean baina aurretik domeka honetan Bidegoianen lehiatuko dute 11:00etan eta martxoaren 16an Donostian.



Lehiaketan parte hartuko duen emakume bakarra, Edurne.

Andreu eta Aldapek finalerdietarako pasea lortzeko aukera dute

Soraluze Pilota Klubeko Nagusiek Euskal Herriko Ligako ligaxka jokatzeko dihardute eta baita ondo jokatu ere, Andreu-Aldape bikotea bigarren da sailkapenean. Gaur 19:00etan Azpeitiko ordezkarien aurka lehiatuko dira Arane

kiroldegian eta partida irabaziz gero, finalerdietarako pasea lortuko dute. Infantil eta Alebinek ere bikain dihardute Gipuzkoako Txapelketan, binakako bigarren faseko lehen bi partidak irabazi egin dituzte, aurkariei eroso irabazita.

Mendi Taldeko bazkidetza zabaltzeaz

Otsailaren 25etik (astelehena) martxoaren 1era bitartean zabalduko dute haur eta gazteen mendi irteeretan parte hartzeko bazkidetza kanpaina. Lizen ematea 18:30etik 19:30era bitartean egin behar da, mendi taldekoen lokalean (Pil-pileanean). Jakinarazi dutenez, martxoaren 10ean Mutriku burutuko den Federazioaren ibilaldi neurtuarekin ekingo diote berriz irteerak antolatzeari. Martxoaren 23an Azkonabitzan izango dira, tontorrean dagoen postontzia aldatzeko asmoa dute, Elgetako Kantsa-

tzeke eta Eibarko Klub Deportiboko bazkideekin batera.



Etxabe Harategia

Euskal txahalkia Bildotsa

Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 23 75

ARMENDIA

JATETKEA

Ezoz Auzoa 11
20590 Soraluze
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA TRADIZIONALA

Korrika martxoaren 20an pasatuko da guretik

“Eman euskara elkari” lelopean martxoaren 20an iluntzeko 19:00etan ailegatu da 18. Korrika Soraluzera. Satuxion Eibartik datorren lekukoa hartu eta Maltzaga, Sagarrerreka, Mandiola industrialdea, Estaziño kalea, Oleako zubia, Santa Ana kalea, Plaza Barrixa, Plaza Zaha-

rra, Kalebarren, Gabolats eta Ezoz Bideko errotonda igaro ostean, Maltzagara bueltan elgoibartarrek hartuko dute lekukoa. Egun berean, eguerdiko 16:00etan abiatuko da eskolatik herriko txikienentzat antolatu den Korrika Txikia. Jarraian jolasak izango dituzte, Korrika nagusia heldu zain denbora giro onean pasatzeko.

Elkarlanean antolatutako egitaraua
Emozioz betetako lasterketa euskaldun eta parte hartzaileak herriko haur, gazte zein heldu batu nahi ditu. Hori lortzeko lanetan dihardu Korrika Batzordeak eta aurreratu dutenez, Korrikaren bueltan antolatu den egitarauan musika kontzertuak, sagardotegira irteera, mural margoketa, bertso saioak, film laburrak eta jolasak ez dira faltako. Martxoaren 14an Andoainen hasi eta 24an Baionan amaituko da 18. Korrika Heritik autobusa antolatuko dute Baionara gerturatu nahi dutenentzat.



Jai Kontrartistikoan parte hartzeko deia egin du Soraluzeko Gazteriak

“Norberak sortutako arteaz gozatzeko” helburuarekin antolatu dute martxoaren 22rako Jai Kontrartistikoa

gaztetxean. Izenak egoki adierazten duen moduan, festa honetan herritar guztiek sormenarekiko dituzten abileziak taularatu nahi dituzte. Dantzaldiak, bakarriketak, antzerkiak, musika emanaldiak, txistekak, kontakizunak... espresio mota oro onartuko dituzte, beti ere, *“lotsak alde batera lagata”* eta *“arteaz zer den kolokan ipintzeko”* helburuak bultzatuta prestatzen direnak. Parte hartzaileei egindakoaz gozatzeko eskatu nahi diete, sormena *“esperimentatu, sentitu, transmititu eta aldarrikatu”* dezaten. Izen ematea gaztetxean bertan egin behar da edo soraluzekogaztetxia@hotmail.es helbidean, martxoaren 11 baino lehen.



Kultur agenda

Gaur, otsailak 22
TRIPAFESTA afari begetarianoak
20:00etatik aurrera, gaztetxean
Ant: Gaztetxea

Otsailak 26, martitzena
MAHAI-INGURUA
“Hezkuntza plazara”
19:00etan, Zinean
Ant: Hezkuntza Batzordea

Martxoak 1, barixakua
KONTZERTUAK
Tooth eta Herstura taldeak
22:30ean, gaztetxean
Ant: Gaztetxea

Martxoak 5, martitzena
GURASO ESKOLAK
Aita eta amentzako formazio programari buruzko informazio-hitzaldia.
19:00etan, Zinean
Ant: Hezkuntza Batzordea

Martxoak 7, eguna
HITZALDIA
“Nor gara? Zenbait klabe krisia ulertzeko”. Joseba Azkarragaren eskutik.
19:00etan, gaztetxean
Ant: Gaztetxea

Martxoak 12, martitzena
HITZALDIA
“Plaentxiko enpresen egoera”
Sindikatu eta langileen eskutik.
19:00etan, gaztetxean
Ant: Gaztetxea

Martxoak 14, eguna
MAHAI-INGURUA
LAB, ELA eta eragileen eskutik.
19:00etan, gaztetxean
Ant: Gaztetxea

Martxoak 15, barixakua
BERTSO KLOWN
22:00etan, gaztetxean
Ant: Gaztetxea

Martxoak 22, barixakua
JAI KONTRARTISTIKOA
22:00etan, gaztetxean.
Ant: Gaztetxea

Zorion agurrak



Ane Aizpurua
Otsailan 27xan 14 urte!
Zorionak eta muxu eder
bat etxekuen partez!



Zorionak Marga!
Otsailan 27xan urtiak betetzen
dittuzulako, jaso muxu haundi
bat danon partetik!



Marina Gil Azcona
Otsailan 13an 10 urte!
Zorionak eta muxu haundi bat
familixian partetik!



Juana Benito
Otsailan 1ian urtiak bete
dittuzulako, zorion eta muxu pilia
seme, errain eta ilobaren partetik!



Amaia eta Enara Agirre!
Zorionak polittak!! Jaso muxu eta besarkada pilia
etxeko danon partetik!



Alba Rico
Martxoan 3an 7 urte! Zorionak
polittori! Muxu haundi-haundi
bat etxeko danon partez!



Nora Larreategi
Otsailan 21ian, 3 urte. Zorionak
printzesa, muxu potolo bat
etxeko guztion partez!



Zorionak Josune
Otsailan 24an 14 urte!
Amparok urtarrilean bete zituen.
Biontzat zorionak, etxekoen partetik!



Ander Agirregomezkorta eta Urko Azula
Otsailan 4an eta 9xan, 21 eta 2 urte!
Zorionak bikote eta muxu asko
familixa guztian partez!



Naroa Zubiaurre
Martxoan 4an 7 urte! Zorionak
eta muxu potolo bat, Ama, aita,
Jone eta etxekoen partez!



Zorionak aitatzxo Dani, Oier eta amama Ramo!
Etxeko danon partetik!

Jaiotakoak eta hildakoak



Zalao Bouzas Fernandez
Salma Mirate
Aitzol Quilez Zabala
Naroa Agirregomezkorta Cuende
Pablo Mateo Iglesias



Isabel Bollain Lizasoro
Pilar Garcia Fernandez
Ana Berriozabalgoitia Arzanegi



IKER LASAGA LLAMAS "TITINO"

2013KO OTSAILAREN 13AN HIL ZEN
35 URTE ZITUELA

*Ez dugu ulertzen, zergatik hain gazte.
Ez dugu ulertzen, ze hain zinen lasaia, umila eta pertsona ona.
Baina ulertzen dugu zergatik elkartu gaituzun
hainbeste lagun zure inguruan.
Gero arte Titino, eta zauden lekuan zaudela
ez ahaztu musika pixkat jartzea.*

Soraluzeko lagunak



Iturria: Ana Mari Eguren

Opil goxoak bedeinkatzera

A spaldikoa da gurean, familia artean, San Blas opilak egin eta elizara bedeinkatzera eramateko tradizioa. Erretratu hau, hain zuen, 1963. urteko San Blas Egunean jasota dago. Arrain hezur bat eztarrarian trabatuta itotzen ari zen haur bat salbatu omen zuen San Blasek, hortik dator eztarriko gaixotasunak sendatzen dituen ustea. Horregatik, opilekin batera, koloretako zintak bedeinkatzen dira. Bederatzi egunen ondoren soka kendu eta sutan erreta, eztarriko

minik gabeko urtea izaten omen da. Ana Mari Egurennek eta Karmen Ariznabarretak urte hartan ezzioten usadioari hutsik egin eta dotore-dotore jantzita, oihal txuriaren babesean, San Blas opilak bedeinkatzera eraman zituzten. Argazki hau, mezaren ostean jasota dagoela dute akorduan. Gaur egun Sorluzen ez ezik, Abadiñon, Eibarren eta Elgoibarren ere ospatzen da San Blas Eguna.

Argazkian, ezkerretik eskumara:

Ana Mari Eguren eta Karmen Ariznabarreta.



BENAN RODRIGUEZ
2000KO OTSAILAREN 28AN HIL ZEN
GOIAN BEGO
XIII. URTEURRENA

*"Atzo nire konpainian,
gaur nire oroimenean,
betirako nire bihotzean"*

Korrika Soraluzen



Marxtoak 1, barixakua. Toofh eta Hersturaren kontzertuak. 22:00etan Gaztejean.

Marxtoak 2, zapaia. Mendi irteera Deba-Mutriku. (Eman izena!)

Marxtoak 9, zapaia. Sagardotegira irteera Pil-pileanekin. (Eman izena!)

Marxtoak 10, domeka. Laburbirak. 18:30ean Gaztejean.

Marxtoak 13, eguazkena. Udaberri kontzertua. 19:00etan Herriko Antzokian.

Marxtoak 15, barixakua. Berfso-klown. 22:00etan Gaztejean.

Marxtoak 16, zapaia. Mural margokeja parte hartzailea. Goizean.

Marxtoak 20, eguazkena. KORRIKA SORALUZETIK. 19:00etan Maltzajik.

16:00etan Korrika Txikia.

16:30etan Haur eta gaztekoendako txokoa.

18:00etan Ekitaldi parte hartzailea

Marxtoak 23, zapaia. Txuri-urdinen X. Urteurrena eta II. Kale-dantza Eguna.

Marxtoak 24, domeka. Korrikaren amaiera Baionan (autobusa).

Marxtoak 25, astelehena. "Berfsoarietza, begirada feminista baj".
Uxue Alberdirekin solasaldia.
18:30ean Zine Arejoan.

SORALUZKO
KORRIKA
BATZORDEA



HEZKUNTZA PLAZARA Mahaingurua

Otsailak 28, eguena, 19:00etan Herriko Antzokian

Gaiak:

Zer da hezkuntza?

Soraluzeko Curriculumua,

LOMCE: zertan eragingo digu?



HIZLARIAK

Arantza Mata (Plaentxi LHiko ikasketa-burua)

Elena Imaz (Soraluze BHiko zuendaria)

Jon Urrusolo (LAB hezkuntza)

Begoña (Gurasoa eta irakaslea)

Maite Kintanilla (Ikaslea eta lako kidea)

Moderatzailea: Unai Txurruka



Antolatzaileak: Ikastetxeak, guraso taldea eta udala.

ZINEMAKO IRRIBARREAK

Zure ametsak egi bihurtzen ditugu



ODONTOLOGIA OROKORRA

ORTODONTZIA

Invisalign < **BERRITASUNA**
Ezkutuko mihi-ortodontzia ikusezina < **BERRITASUNA**
Zeramika eta zirkoniozko bracket oso estetikoak < **BERRITASUNA**

PERIODONTZIA

Diagnosi digital periodontala < **BERRITASUNA**
Análisi mikrobiologiko periodontal eta genetikoa < **BERRITASUNA**
Periodontitis-tratamendua kirurgiarik gabe < **BERRITASUNA**
LASER diodoa
Mentuak hortzoietan

AHO-KIRURGIA

Ateratze zailak eta sustrai-hondarrak
Azkenaginak ateratzea kirurgiarekin
Barneko hortzak ateratzea

INPLANTOLOGIA

Hezur eta hortzoi gabeziarentzako tratamenduak
Hezur-birsortzea biomaterial bidez < **BERRITASUNA**
Hortzoi-birsortzea
Inplantologia transzigomatikoa < **BERRITASUNA**
Hortz finkoak egunean bertan inplanteekin < **BERRITASUNA**

PROTESI FINKOA

Metalezko koroa libreak < **BERRITASUNA**
Zirkoniozko koroa puruak < **BERRITASUNA**
CAD-CAM koroak (ordenagailuz egindakoak) < **BERRITASUNA**
Karillak

MUGITU DAITEZKEEN PROTESIAK

Oklusioa eta ATM

OKLUSIOAREN DIAGNOSI DIGITALA < BERRITASUNA

ZURIKETA LASER bidez saio bakarrean < BERRITASUNA

ODONTOPIEDIATRIA (PADI)

ERRADIOLOGIA DIGITALA

SUDUR-LASAIGARRIA < BERRITASUNA

MUTUA ETA ASEGURUAK

GLOBAL CARD, EMESA PREVENCIÓN, MUTUA UNIVERSAL, FRATERNIDAD,
CARREFOUR LIFE, IMQ, AZKARAN, PREVISORA BILBAINA, SANTA LUCIA,
AEGÓN/STONEBRIDGE, OCASO, AVANTSALUD, PADI...

ZERBITZU BERRIAK

ETENGABEKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik **22:00**etara

zapatuetan:

10:00etatik **14:00**etara

LARRIALDIETARAKO TELEFONO BIDEZKO ARRETA

24 orduz

GALDETU



GALDETU

2. mediku-iritzia

Unibertsitate entzutetsuetan irakasleak gara.
Ospea duen zentroa gara.

ETXEZ-ETXEKO ARRETA-ZERBITZUA



Etxeko arreta:
Pazientea jaso eta etxera itzuli
GALDETU



IRAZABAL

clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Promozio bereziak 2013ko martxoaren 15era arte, kupoi hau aurkeztuz

%20 Deskontua hortz-inplanteetan*

*Soilik hortz-inplanteetarako

%10 Deskontua larunbatetan egindako tratamenduetan

LASER bidezko zuriketa
Hortzetarako arkatxurutzaila
Higienea **525 €**
BESTELAKO PROMOZIOAK: **GALDETU**